

XAKEKO TALDEKAKO EUSKAL LIGA.

(2018ko urtarrilaren 13tik martxoaren 10era)

OHOREZKO MAILA

2018-02-24: ZAZPIGARREN TXANDA

Santa Ana Siglo XXI (Tutera, Nafarroa) (7) – Abadiño (Bizkaia) (6'5): 3-1.

Daniel Roldan Marques (2.189) (Santa Ana Siglo XXI) – Rodrigo Sarralde Osua (2.363) (Abadiño): 1-0.

Alain Prieto Aranguren (2.238) (Abadiño) – Patxi Sesma Rubio (2.150) (Santa Ana Siglo XXI): 1-0.

David Garrido Las Heras (2.075) (Santa Ana Siglo XXI) – Diego Sarralde Osua (2.045) (Abadiño): 1-0.

Manex Regillaga Elias (1.785) (Abadiño) – Ainhoa Ortin Blanco (2.029) (Santa Ana Siglo XXI): 0-1.

Calasanz (Gasteiz, Araba) (10) – Gros Xake Taldea (Donostia, Gipuzkoa) (15'5): 2-2.

Orvina A (Iruñea, Nafarroa) (20) – Sestao Bizkaialde (Bizkaia) (20'5): 1'5-2'5.

Unai Garbisu De Goñi (2.406) (Orvina A) – Salvador Gabriel Del Rio De Angelis (2.520) (Sestao Bizkaialde): 0'5-0'5.

Jesus Iruzubieta Villaluenga (2.426) (Sestao Bizkaialde) – Mikel Ortega Lopez (2.232) (Orvina A): 0'5-0'5.

Pablo Urriza Iricibar (2.217) (Orvina A) – Juan Mario Gomez Esteban (2.362) (Sestao Bizkaialde): 0'5-0'5.

Javier Marchena Hurtado (2.340) (Sestao Bizkaialde) – Sergio Navarrete Delgado (2.217) (Orvina A): 1-0.

Donibane Kirol Elkartea (Iruñea, Nafarroa) (15'5) – Batalla (Irun, Gipuzkoa) (12'5): 2'5-1'5.

Roi Reinaldo Castiñeira (2.468) (Donibane Kirol Elkartea) – Juan Ignacio Alonso Arburu (2.397) (Batalla): 1-0.

Carlos Cruz-Lopez Claret (2.254) (Batalla) – Alvaro Bayo Milagro (2.293) (Donibane Kirol Elkartea): 0'5-0'5.

Luis David Jimenez Almeida (2.188) (Donibane Kirol Elkartea) – Ivan Muñoz Perez (2.218) (Batalla): 0-1.

Luis Olaizola Ortega (2.148) (Batalla) – Jesus Sanchez Carayol (2.082) (Donibane Kirol Elkartea): 0-1.

Altzaga/Itsas Zaldunak (Santurtzi, Bizkaia) (7) – Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) (5'5): 2-2.

SAILKAPENA

- 1) **Sestao Bizkaialde A (Bizkaia) – 23 puntu.**
- 2) **Orvina A (Iruñea, Nafarroa) – 21'5 puntu.**
- 3) **Donibane Kirol Elkarte (Iruñea, Nafarroa) – 18 puntu.**
- 4) Gros (Donostia, Gipuzkoa) – 17'5 puntu.
- 5) Batalla (Irun, Gipuzkoa) – 14 puntu.
- 6) Calasanz (Gasteiz, Araba) – 12 puntu.
- 7) Santa Ana Siglo XXI (Tutera, Nafarroa) – 10 puntu.
- 8) Alzaga/Itsas Zaldunak (Santurtzi, Bizkaia) – 9 puntu.
- 9) **Abadiño (Bizkaia) – 7'5 puntu.**
- 10) **Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) – 7'5 puntu.**

ORVINAK GALDU ZUEN SESTAOREN AURKA; DONIBANE ETA SANTA ANARENTZAT, ORDEA, EGUN ONA

Sergio Navarretek galdu zuen Javier Marchenaren aurka eta hein batean titulurako Orvinaaren asmoak zapuztu. Unai Garbisuk, Mikel Ortegak eta Pablo Urrizak merituzko berdinketak lortu zituzten Gabriel Del Rio, Jesus Iruzubieta eta Mario Gomezen aurka, baina orain alde 1'5 puntukoa da Sestaoren alde. Borrokak, hala ere, aurrera segituko du.

Donibanek Batalla garaitu zuen: 2'5-1'5. Hirugarren posturako borrokatik kanpo utzi du Irungo taldea. Gros da podiumean sartzeko aurkaria, orain. Roi Reinaldo eta Jesus Sanchez Carayol izan ziren garaipena lortu zutenak Donibanen.

Santa Anak mailari eustea ia ziurtatu zuen, Abadiño 3-1 garaituta. Daniel Roldan, David Garrido eta Ainhoa Ortin izan ziren Santa Anako garaileak. Lehenengo mahaian, Daniel Roldan Marquesek 2.363ko eloa duen Rodrigo Sarralde Osua gainditu zuen. Berriz ere bere mailaren berri ematen Tuterakoa.

2018-03-03: ZORTZIGARREN TXANDA

Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) (7'5) – Santa Ana Siglo XXI (Tutera, Nafarroa) (10).

Batalla (Irun, Gipuzkoa) (14) – Alzaga/Itsas Zaldunak (Santurtzi, Bizkaia) (9).

Sestao Bizkaialde (Bizkaia) (23) – Donibane Kirol Elkarte (Iruñea, Nafarroa) (18).

Gros Xake Taldea (Donostia, Gipuzkoa) (17'5) – Orvina A (Iruñea, Nafarroa) (21'5).

Abadiño (Bizkaia) (7'5) – Calasanz (Gasteiz, Araba) (12).

ORVINAK EMAITZA ONA BEHAR DU GROSEN ETA DONIBANEREN LAGUNTZA SESTAON

Grosen aurka jokatu du Orvinak. Aurkari zaila, baina azkeneko txandetan taldea osatzeko arazoekin ibili dena. Beraz, aukera ona izan daiteke Grosi irabazteko. Gertatzekotan, Orvina Donibaneren mepe geratuko da. Hauek Sestaon dute lehia eta gogoz saiatuko dira hirugarren postuari heltzeko.

Santa Anak Amorebietan du partida Arrasate/Arlutz-en aurka. Maila ziurtatzeko neurketa dirudi, baina oso motibatutako taldea izanen dute aurrez aurre, jaitsiera saihesteko emaitza ona behar baitu.

Informazio gehiago: "http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_Alineaciones%20y%20sedes.html" eta "http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-DH_inicio.html" webguneetan.

LEHENENGO MAILA

2018-02-24: ZAZPIGARREN TXANDA

Portugalete (Bizkaia) (12) – Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) (9'5): 0'5-3'5.

Danubio (Miranda Ebro) (13'5) – Easo (Donostia, Gipuzkoa) (14'5): 1'5-2'5.

Orvina B (Iruñea, Nafarroa) (9'5) – Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (10'5): 1'5-2'5.

Ignacio Soriano Ascaso (2.162) (Orvina B) – **Carlos Varas Gonzalez (2.248) (Conteneo): 0-1.**

Iñaki Arnaez Gil (2.181) (Conteneo) – **Gonzalo Mombiela Martinez (2.141) (Orvina B): 0-1.**

Javier Cinza Lopez (2.010) (Orvina B) – Santiago Sanz Castillo (2.118) (Conteneo): 0'5-0'5.

Johnny Fernando Sadusea (2.087) (Conteneo) – Egoi Hernandorena De la Cruz (2.043) (Orvina B): 1-0.

Oberena (Iruñea, Nafarroa) (12) – Zarautz (Gipuzkoa) (12): 3-1.

Daniel Zamarbide Iñarrea (2.178) (Oberena) – Francisco Javier Ladron de Guevara Galar (2.087) (Zarautz): 1-0.

Erik Juez Villar (1.985) (Zarautz) – **Aurelio Vila Dupla (2.131) (Oberena): 0-1.**

Jose Miguel Ugalde Ezkurra (2.119) (Oberena) – Ander Zulaika Centeno (2.022) (Zarautz): 0'5-0'5.

Mikel Vicente Ezeiza (1.931) (Zarautz) – Pedro Viñal Gutierrez (2.074) (Oberena): 0'5-0'5.

Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (14'5) – Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) (12): 2'5-1'5.

SAILKAPENA

- 1) Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) – 17 puntu.**
- 2) Easo (Donostia, Gipuzkoa) – 17 puntu.**
- 3) Oberena (Iruñea, Nafarroa) – 15 puntu.**
- 4) Danubio (Miranda Ebro) – 15 puntu.**
- 5) Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) – 13'5 puntu.**
- 6) Conteneo (Bilbo, Bizkaia) – 13 puntu.**
- 7) Zarautz (Gipuzkoa) – 13 puntu.**

- 8) Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) – 13 puntu.
- 9) Portugalete (Bizkaia) – 12'5 puntu.
- 10) Orvina B (Iruñea, Nafarroa) – 11 puntu.

OBERENA, GORA; ORVINA B, BEHERA

Oberenak Zarautzen ibilbide ona moztu zuen. 3-1eko emaitzak talde baten patua erabaki zuen: Oberena igotzeko borrokatuko da; Zarautz ez jaisteko.

Daniel Zamarbidek eta Aurelio Vilak eman zioten garaipena Oberenari. Jose Miguel Ezkurdiak eta Pedro Viñalek berdinketa lortu zuten. Egia erran, elo gehiago izanik handiagoa izan zitekeen Oberenaren abantaila, baina beti zaila da irabaztea.

Orvina B-k garaipena behar zuen Conteneoren aurka, baina 1'5-2'5 galdu zuen. Ez zen erraza neurketa. Elo gehiago zuten Bilbokoe, gutxigatik bazen ere. Azkenean Ignacio Ascasiok eta Egoi Hernandorenak galdu zuten ete errekarra jo zuen taldeak. Gonzalo Mombielak puntua lortu zuen 2.181eko Iñaki Arnaez Gilen aurka, baina Javier Cinzak berdinketa besterik ez zuen lortu Santiago Sanz Castilloren aurka. Merituzko berdinketa, baina ez nahikoa porrota saihesteko.

Orvina B ez dago jaitsita, baina mirariren antzeko bat behar du, erreakzio indartsua. Matematikoki oraindik hori egiterik badago.

2018-03-03: ZORTZIGARREN TXANDA

Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) (13'5) – Portugalete (Bizkaia) (12'5).
Zarautz (Gipuzkoa) (13) – **Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (17)**.
Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (13) – Oberena (Iruñea, Nafarroa) (15).
Easo (Donostia, Gipuzkoa) (17) – Orvina B (Iruñea, Nafarroa) (11).
Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) (13) – Danubio (Miranda Ebro) (15).

OBERENAK BESTE JAUZI BAT EMAN DEZAKE; ORVINA B-RENTZAT, ERREAKZIONATZEKO AZKEN AUKERA

Oberenak Conteneori eginen dio bisita. Azeleragailua zapaltzen ari da talde bilbotarra, jaitsiera saihesteko. Partidak patxadaz mahaietan erabakitzen dira eta Oberenak erakus dezake igotzeko hautagaia dela. Ikusiko dugu zer gertatzen den!

Easok Orvina B jasoko du. Igotzea du jopuntuan talde donostiarrak. Orvina B-k, ordea, garaipen argia behar du. Erreakzionatzeko azken aukera izanen da.

Informazio gehiago: ["http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_Alineaciones%20y%20sedes.html"](http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_Alineaciones%20y%20sedes.html)
eta ["http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_inicio.html"](http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_inicio.html) webguneetan.

2018-02-24.

Iturria: Euskal Xake Federakuntza.